*Irune Berasaluze Lazkano*

*Gipuzkoako Foru Aldundi Txit Garaiko Gobernantza Departamentuko foru diputatu eta Diputatuen Kontseiluko idazkaria.*

*Diputada foral del Departamento de Gobernanza y secretaria del Consejo de Gobierno Foral de la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa.*

**ZIURTATZEN DUT:**

**Foru Aldundi honetako Diputatuen Kontseiluak, 2024ko otsailaren 20an egindako batzarraldian, ondoko erabakia hartu zuela:**

“Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 8. artikuluko 1. zenbakian jasotzen duenez, herri administrazioetako organoen betebeharra da dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztea zein helburu eta ondorio lortu nahi diren dirulaguntzen aplikazioarekin, zein epe izango den beharrezkoa horiek lortzeko, zenbateko kostuak aurreikusten diren, eta finantzaketa iturriak zein diren; plana burutzeko, ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea.

Horrekin bat etorriz, funtsezko betekizuna da plana, eta gainera, dirulaguntzak arautu aurrekoa; beraz, edozein dirulaguntza ezarri aurretik onetsi behar da.

Alde horretatik, legezko agindu hori betetzeko ez ezik, Foru Aldundiaren gainerako plangintza-tresnekiko lotura eraginkorra ahalbidetuko zuen dokumentu bat edukitzeko ere, 2020ko martxoaren 3ko erabaki bidez, Diputatuen Kontseiluak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onetsi zuen, eta ekitaldi bakoitzean eguneratu zen 2021eko apirilaren 13ko, 2022ko martxoaren 8ko eta 2023ko martxoaren 7ko erabakien bidez.

**CERTIFICO:**

**Que el Consejo de Gobierno Foral de esta Excma. Diputación Foral, en sesión de 20 de febrero de 2024, adoptó el siguiente acuerdo:**

“La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, recoge en su artículo 8.1 la obligación de los órganos de las administraciones públicas de concretar en un plan estratégico de subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.

De conformidad con ello, el plan es un requisito esencial y previo a la regulación de la subvención, por lo que debe aprobarse con anterioridad al establecimiento de cualquier subvención.

En este sentido, no solo para dar cumplimiento a dicho mandato legal, sino para disponer también de un documento que permitiera una vinculación efectiva con las demás herramientas de planificación de la Diputación Foral, por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 3 de marzo de 2020 se aprobó el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 de la Diputación Foral de Gipuzkoa, actualizado posteriormente en cada ejercicio por acuerdos de 13 abril de 2021, 8 de marzo de 2022 y 7 de marzo de 2023.

SINA2d0320eb-b4dd-464b-bba6-d682fd8f22b4

2024-2027ko Dirulaguntzen Plan Estrategiko berria eratzeko prozesuan, beharrezkoa da denbora-eremu bereko Plan Estrategiko bat eta 2024rako aurrekontu bat izatea.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027ko Plan Estrategikoaren diseinua amaitzear dago eta aurreikusita dago Diputatuen Kontseiluak onetsiko duela 2024ko martxoko lehen asteetan. Plan berritzailea da, eta, aurrekoetan ez bezala, proposatzen dituen helburuak lortzeko departamentuen arteko kudeaketaren beharra jasotzen du, besteak beste. Horren ondorioz, aurreko plan estrategikoetan baino gehiago atzeratu da izapidetzea.

Bestalde, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Batzar Nagusiek Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztutako aurrekontu orokorren proiektua onetsi ez dutenez, 2023ko aurrekontuak automatikoki luzatu dira 2024. urterako. Zeregin horrek bere denbora behar du, eta gaur egun aurrekontu-luzapen horren behin betiko idazketa amaitzen ari da.

Faktore horiek direla eta, ezinezkoa da Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027ko Dirulaguntzen Plan Estrategiko berria egitea. Plana egin ahal izateko sekuentzia logikoak eskatzen du, lehenik eta behin, aurrekontu-programak egokitzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoan ezarritako helburu berrietara. Horretarako, Estrategia Zuzendaritza Nagusiak kanpo-aholkularitza bat gaituko du, EBA sisteman (emaitzetara bideratutako aurrekontua) sartuta dauden departamentuei eta entitateei egokitzapen-lan horiek egiten laguntzeko.

Bigarrenik, EBA sistema horretan kargatu behar da Foru Aldundiak 2024ko ekitaldirako luzatutako aurrekontua. Une horretatik aurrera, aurrekontu-programetan jasotako ekintzen eta aipatutako luzapenean jasotako kredituen arteko loturak egin beharko dira. Mugarri horren ondoren, 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategiko berria idazten hasi ahal izango da

Horrek guztiak epe batzuk eskatzen ditu, eta horrek eragin negatiboa izan dezake Foru Aldundiak ematen dituen dirulaguntzen izapidetzean.

El proceso de configuración del nuevo Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 requiere la existencia de un Plan Estratégico con idéntico ámbito temporal y de un presupuesto para el año 2024.

El diseño del Plan Estratégico 2024-2027 de la Diputación Foral de Gipuzkoa está a punto de finalizar y se prevé que sea aprobado por el Consejo de Gobierno Foral en las primeras semanas de marzo de 2024. Se trata de un plan innovador que, a diferencia de los que le han precedido, incorpora, entre otras cuestiones, la necesidad de la gestión interdepartamental para la consecución de los objetivos que propone. Ello ha provocado que su tramitación se haya demorado más que en los anteriores planes estratégicos.

Por otro lado, la no aprobación por parte de las Juntas Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa del proyecto de presupuestos generales presentado por la Diputación Foral de Gipuzkoa ha traído consigo la prórroga automática para este año 2024 de los presupuestos de 2023. Esta tarea está llevando su tiempo y a día de hoy se está ultimando la redacción definitiva de dicha prórroga presupuestaria.

Estos factores están impidiendo la elaboración del nuevo Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 de la Diputación Foral de Gipuzkoa. La secuencia lógica para poder elaborar el plan exige, en primera instancia, la adaptación de los programas presupuestarios a los nuevos objetivos establecidos en el Plan Estratégico 2024-2027 de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Para ello, la Dirección General de Estrategia va a habilitar una consultoría externa que va a ayudar a los departamentos y entidades integradas en el sistema EBA (Presupuesto Orientado a Resultados) a llevar a cabo esas tareas de adaptación.

En segundo lugar, resulta necesario cargar en dicho sistema EBA el presupuesto prorrogado de la Diputación Foral para el ejercicio 2024. A partir de ese momento, se deberán realizar las conexiones entre las acciones recogidas en los distintos programas presupuestarios con los créditos contenidos en la mencionada prórroga. Tras ese hito, podrá iniciarse la redacción del nuevo Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027.

Todo ello conlleva unas necesidades de plazos que pueden incidir negativamente en la tramitación de las subvenciones que concede esta Diputación Foral.

SINA2d0320eb-b4dd-464b-bba6-d682fd8f22b4

Beharrezkoa da, beraz, 2024rako aurrekontu luzatu horren barruan dauden dirulaguntzei estaldura ematea. Dirulaguntza horiek, nolanahi ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasoko dira.

Horrenbestez, Diputatuen Kontseiluak, diputatu nagusiak proposatuta eta eztabaidatu ondoren,

**ERABAKITZEN DU**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren indarraldia luzatzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2024. ekitaldirako luzatutako Aurrekontu Orokorretan jasotako dirulaguntzei dagokienez, 2024-2027 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa egin eta onetsi bitartean."

Resulta, por tanto, preciso dar cobertura a las subvenciones que están contempladas dentro de dicho presupuesto prorrogado para 2024, que serán recogidas en todo caso en el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Por consiguiente, a propuesta de la diputada general, previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral,

**ACUERDA**

Prorrogar la vigencia del Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en relación con las subvenciones contempladas dentro de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa prorrogados para el ejercicio 2024, en tanto se procede a elaborar y aprobar el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027."

| **Digitalki sinatua** / Firmado digitalmente por: |
| --- |
| **Irune Berasaluze Lazkano**<br><br>**Foru Diputatua /** Diputada Foral<br>**Gobernantza Departamentua /** Departamento de Gobernanza |

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| | |
|---|---|
| **Titulua / Título:** | DKE_202402020_78 ziurtagiria |
| **CSV/EKS:** | SINA2d0320eb-b4dd-464b-bba6-d682fd8f22b4 |

Sinatzailea 1 / Firmante 1:
BERASALUZE LAZKANO, IRUNE
Data / Fecha: 2024/02/21 13:32:50